

Artezkaritza-kontseiluaren bilera-data

Maiatzaren 6an izango da Artezkaritza-Kontseiluaren hurrengo bilera. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, artezkaritza@udarregi.eus helbidera bidaliz jakinarazi dezakezue.



Jangela

Maiatzeko menua

Hona hemen maiatzean jangelako bazkaldarrek izango duten [menua](#) eta baita [menu berezia](#) behar duten bazkaldarrena ere.



Ekaineko antolaketa

Ekainaren 1etik 19ra HHko (3 eta 6 urte bitarte) eta LHko ikasleek eskolak goizez bakarrik izango dituzte, alegia, 9:00etatik 12:30era arte.

DBHko ikasleek, ekainaren 1etik 11ra lanaldi jarraia izango dute (8:25-14:30) eta ekainaren 12tik 19ra 8:25etik 12:30era.

Beraz, zuen semeak edo alabak **jangela-zerbitzua erabiliko duen edo ez** jakitea beharrezkoa zaigu. Horretarako, **maiatzaren 13a** baino lehen, mesedez, [galdetegi hau](#) betetzea eskatu nahi dizuegu. **Etxera bakarrik joateko baimena** duen edo ez ere adierazi behar duzue. **Txanda bakar batean bazkalduko dute bazkaldar guztiek**, alegia, 12:30ean.

Nola eragin gure seme-alaben hizkuntza ohituretan

Udarregi Ikastolak, Usurbilgo Udalak eta UEMAK **familiei zuzendutako tailerra** antolatu dugu: *Nola eragin gure seme-alaben hizkuntza-ohituretan?*

Saioa **maiatzaren 7an, osteguna**, izango da **16:00etatik 17:30era** Udarregi Ikastolako **Agerialde eraikineko 3. solairuan**, eta bertara gonbidatuta zaude. [Hemen informazio osoa](#)




Pantailekin harremana

Ikasleek ordenagailuekin eta pantailekin duten harremana hobeto ezagutzeko, eta zuen iritzia jasotzeko helburuarekin, honako [galdetegia](#) GAUR bertan betetzea eskertuko genizueke.

Zuen iritzia funtsezkoa da ikastolaren eta etxearen arteko bidea elkarrekin adostu eta hobetzeko.

Erantzunak anonimoak izango dira.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik eta parte-hartzeagatik!



Arratsaldeko zaintza ekainean

Ekainaren 1etik 19ra eskolak goizez soilik izango dira, 9:00etatik 12:30etara. Horregatik, arratsaldeko zaintza zerbitzua (14:30etik 16:30era) antolatzen ari gara. Zerbitzuak aurrera egin ahal izateko gutxieneko taldea osatu beharko da. Zerbitzuaren kostua **93,75 €** izango da gehienez, gutxieneko kopurua osatuz gero. Izena ematen duten haurren kopurua zenbat eta handiagoa izan, prezioa ere jeitsi egingo da.



Horretarako, mesedez [galdetegi hau](#) bete **maiatzaren 15a baino lehen**.

Familia-plana

Maiatzaren 3an, igandea, ospatuko den Andatza egunerako familia-plan baterako gonbitarekin gatoz Zirimarako hezitzaileak. Deialdia irekia da, hau da, herriko edozein familiak har dezake parte.

Goizeko 9:30ean elkartuko gara San Estebango plazan denok batera igotzeko Andatzara.

Bertan, Ikastolek urtero antolatzen duten Kilometroak festaren 50. urteurrena dela eta, **50 urte 50 tontor** ekimenarekin bat eginez, aterako dugun argazkian parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Animatu parte hartzera!



Udal-dirulaguntzak

Usurbilgo kirol-saileko dirulaguntzen artean, eskolaz kanpoko kirol jarduerak laguntzeko dirulaguntza argitaratu da (oinarriak <https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/02/12/c2600473.pdf> (4. lerroa))

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Klub/erakundearen ziurtagiri zigilatua (izena eman duela eta zenbat ordaindu duen egiaztatzen duena)
- [2.a eranskina](#) eta [2.f eranskina](#). Honekin batera dagokion dokumentazioa Dirulaguntza horretako lehenengo **eskaera-epea gaur** amaitzen da. Bigarren epea udazkenean irekiko da.



Usurbilgo Udala

Gure haurrak ere badira” ekimena, azken bultzadan

Pasa den urrian abiatu zen *Gure haurrak ere badira* dinamika Euskal Herriko ikastetxe eta herri askotara zabaldu da, ehundaka ekimen eta mobilizazioekin. Bilboko manifestazio jendetsuak eta kamiseten salmentak arrakasta handia izan dute, eta guztira 66.000 euro bildu dira, jada Palestinara bideratu direnak UNRWA eta Paz con Dignidad erakundeen bidez.



Oraindik kamiseta batzuk eskuragarri daude eta antolatzaileek azken ahalegin bat egiteko deia egin dute: erosi eta mezua zabaltzea, elkartasun olatuari jarraipena emateko.

Informazio gehiago eta erosketa: <https://shop.serigrafia.eus/gurehaurrak/eu/>
Genozidua gelditu!

HAUR HEZKUNTZA

Zorriak

HH 4 eta HH 5eko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.


NEURRI HAUEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



LEHEN HEZKUNTZA

LH4 irteera

Hurrengo astean, **maiatzaren 7an, osteguna**, LH4ko ikasleek **Debara irteera** egingo dute. Joan-etorria **trenez** egingo dugunez, ikasleek **MUGI txartela** ekarri beharko dute.

 **Goizeko 8:45etan**, denok **tren geltokian** elkartuko gara. **Puntualtasuna** eskatzen da.

 **Bueltan, 16:30etan**, haurrak **tren geltokian** jasoko dituzue.

Haurrek **hamaiketakoa eta bazkaria** ekarri beharko dute.

Gainera, **ibilalditxo bat egiteko arropa eroso** ekartzea ere komeni da.



LH5 irteeraren kobrantza

LH5. mailako ikasleek Aiako Harriak-era egindako irteeraren 3. eta azken zatiaren kobrantza **astelehenean**, maiatzak 4, egingo da. Zenbatekoa **26,15 €** da.



Ikastola eguneko bazkaria antolatzeko bilera-deialdia (arduradunentzat bakarrik)

Ikastola eguneko bazkaria antolatzeko lehenengo bilera egin zen pasa den astelehenean LH5 eta LH6ko gurasoekin, baina lantalde askotan arduradunak osatzea falta da oraindik:

- TXARTELAK lantaldea (LH5eko arduradun bat eta LH6ko arduradun bat)
- OSTALARIEKIN KOORDINAZIO lantaldea (LH5eko arduradun bat eta LH6ko arduradun bat)
- ESKAERAK lantaldea (LH5eko arduradun bat eta LH6ko arduradun bat)
- KROKISA lantaldea (LH5eko arduradun bat eta LH6ko arduradun bat)
- ZERBITZARIAK lantaldea (LH5eko arduradun bat)
- KAFAEA lantaldea (LH5eko arduradun bat)



ARDURADUNEKIN BAKARRIK, bilera egingo da maiatzaren 4ean, Agerialde eraikineko hirugarren solairuan arratsaldeko 17:00etan. Bertan, lantalde bakoitzeko egin beharrekoak azalduko dira.

Oraindik lantaldereen batean izena eman ez baduzu eta arduradun lanetan aritzeko prest bazaude, asteleheneko bileran ikusiko dugu elkar! Animate!

DBH1-era pausua

LH6ko familiei zuzendutako bilera bat izango da gaur. Bertan, etapa berrirako pausuaren inguruan hitz egiteko aukera izango duzue DBHko ikasketa-buruarekin: etaparen berri izan, galderak egin, ardurak partekatu eta, batez ere, hautazko arloen inguruko informazioa jasotzeko tarte hartuko da. Xuxurlari zerbitzua egongo da.

DBHra pasuari buruzko bilera:

Data: gaur, apirilaren 30a

Ordua: 17:00

Lekua: Udarregi eraikina, 4B gela (idazkaritzaren ondoan)



BIGARREN HEZKUNTZA

Ez dago berririk.